

LEHENENGO ARIKETA. (5 puntu)

Ariketa honetan gai baten inguruko 5 testu labur (1-5) dituzu alde batetik, eta testuak laburbiltzen dituzten (A-H) esaldiak bestetik. Zuk taulan parekatu behar dituzu. 0 zenbakia adibidea da eta bi esaldi sobera daude.

Indusketak, aurkikuntzak, antzinako monumentuak

0.

Nira Alperson-Alfil Jerusalemeko Unibertsitateko arkeologoak Jordan ibaiaren haraneko Gesher Benot Yaaqov aztarnategian aurkitutako arrasto kixkaliak aztertu eta gizakiek duela 790.000 sua egiten zutela ondorioztatu du. Garai hartan sua batetik bestera eramateko eta kontrolatzeko gai zirela argitaratu zen 2004an, baina orain sua sortzeko gai ere bazirela frogatu ahal izan dute. Dena den, oraindik ez dakite zer teknika erabili zuten. [...].

1.

Atenasko Akropoliak naturaren eta gizakien mehatxu mordoa jaso du historian zehar, baina azken hamarkadetan orain arteko etsairik gogorrenaren aurka ari da borrokan: kutsadura. Akropoliaren zaharberitze zerbitzuko zuzendari Maria Ioannidou-ren esanetan, kutsadurak egituraren, eskulturen eta pinturen xehetasunak suntsitzen ditu.

Horiek berreskuratzeko teknologia berriak baliatu nahi izan dituzte. 40 prozedura ingururekin proba egin dute, eta azkenean, laser infragorria eta ultramorea batzen dituen metodoa aukeratu dute.

Lehenik eta behin Partenoia zaharberritu dute teknika hori erabiliz, eta orain Kariatideen galeriaren txanda da. Hala ere, metodo horri esker ezin dute kutsaduraren kaltea erabat eten; haren eragina apaltzea baizik ez dute lortzen. Borroka oraindik ez dutela irabazi, alegia.

2.

Mexikon kakao arrastoak topatu berri dituzte duela 3.750 urteko ontzi batean. Jakina zen maiek kakaoa hartzen zutela, baina aurkikuntzak orain arte pentsatu baino zortzi mende lehenago ere erabiltzen zutela esan nahi du, maien zibilizazioa eratzen ari zen garaian hain zuzen. Ontzia Veracruzen topatu dute, Cerro Manatí-ko eremu sakratuan egiten ari diren indusketetan. Kakao aleak xehatu, egosi, eztiarekin, irinarekin eta beste osagai batzuekin nahastu eta lortutako edari alkoholoduna zeremoniatan erabiltzen omen zuten.

3.

Gizako laugarren piramidea ia ezezaguna da. Dyedefra faraoiak eraikiarazi zuen, Keops aitaren lorpenak gainditzeko asmoz. Hortaz, Keopseko piramidea baino 7,62 metro altuagoa zen. 5.000 urtetan hareak erdi estalita egon da eta arrastoak ez zituzten Gizako piramideekin lotzen, handik zortzi kilometrora eraiki baitzuten.

Baina azken hamabi urtetan, Zahi Hawass doktorea buru duen taldea piramidean indusketa lanak egiten aritu da eta euren ikerketaren emaitzak *Piramide galdua* izenburuko bi orduko sail dokumentalean bildu dituzte. Dokumentalean, besteak beste, lau piramideak pasabide amaigabeez lotuta zeudela azaltzen da.

4.

Numantziako aztarnategi arkeologikoa arriskuan dago, inguru horretan burutuko diren hainbat proiektu urbanistikoren erruz. Espainiako Historiako Errege Akademiak nahiz San Fernando Arte Ederren Akademiak txosten bana plazaratu dute Soriako talde monumental garrantzitsu horren

egoera larria agerian utziz. Berehala, hainbat elkarte, unibertsitate eta adituk bat egin dute akademien kezka eta eskakizunekin.

Beste behin, nabarmen geratu da aztarna historikoek ez dutela babes nahikorik. Antzinaroko aztarna hauek behintzat defentsa numantziarra beharko dute zementuaren inbasioari aurre egin ahal izateko.

5.

Siziliako kostaldean itsasontzi greziar baten arrastoak berreskuratu berri dituzte. Inoiz ez da tamaina horretako ontzi greziarrik topatu (21 metroko luzera du) eta, gainera, arrastoak oso egoera onean kontserbatu dira.

Homerok Iliadan deskribatutako ontzien ezaugarriak zituen. Propulzio bikoitzeko ontzia zen, hau da, arraunek nahiz oihalek bultzatzen zuten. Merkataritzan erabiltzen zen eta, Atenasen eta Peloponesoko portu batean eskala egin ondoren, ekaitz batek urperatu omen zuen Gelako portutik 800 metrora.

Ur azpian 2.500 urtetan ezkutuan egon eta gero, 1988an aurkitu zuten, baina hogeit hamar urte behar izan dituzte gila eskerga eta poparen zati bat uretatik ateratzeko. Horretarako, 200 tonako garabia erabili dute. Arrastoak metalezko saski handi batean bildu, ur gezatan sartu eta Britainia Handira eramango dituzte, han zaharberritzeko. Rosalba Panvini operazioaren koordinatzailearen esanetan, arrastook antzinako Greziako nabigazio teknikak eta ibilbide komertzialak hobeto ezagutzeko balioko dute, besteak beste, salgai zatiak ere aurkitu dituztelako.

Nagore Irazustabarrena - “Arrastoak” (*Argia* aldizkaria)

Esaldia

- A. Antzinako garaietan gizakia gauza zen sua pizteko eta toki batetik bertzera eramateko.
- B. Askotan, arrasto arkeologikoen ez dute behar adinako babesik hiriak handitzeko proiektuek dakarten arriskuari aurre egiteko.
- C. Duela gutxi, antzinako itsasontzi bat uretatik ateratzea lortu dute, antzinako Greziako historiaren zenbait alderdi hobeki ezagutzen lagunduko diguna.
- D. Gizakiak orain arte uste baino askoz lehenago hasiak ziren txokolatea hartzen.
- E. Ia ezezaguna zen Gizako laugarren piramidea azalera atera berri dute.
- F. Kutsadura dela eta, berriki arte Gizako laugarren piramidea ia ezezaguna izan da.
- G. Kutsadurak monumentuetan eragindako kalteak arintzeko metodo bat probatzen ari dira Grezian.
- H. Sizilian, 2.500 urtean ur azpian egon eta gero, Homerok erabili zuen itsasontzia berreskuratu dute.

Testua	0	1	2	3	4	5
Esaldia	A					

BIGARREN ARIKETA. (5 puntu)

Ondoren, Argia aldizkariko artikulua bat duzu. Hurrengo orrialdean 5 (6-10) galdera dituzu. Erantzun zuzena (a, b, c) aukeratu. 0 zenbakia adibidea da.

Zergatik eskatu etorkinari euskara ikasteko?

2005eko hasieran 50.000 ziren etorkinak Nafarroan, populazioaren %9,5. EAEn 98.524 omen dira [...]. Datuok esanahi handikoak litezke, kontuan harturik hamar urtean kopuruak izan duen hazkunde azkarra: 2000. urtean 20.000 atzerritar zeuden errolatuta EAEn. Nafarroan, 1996an, %0,6koa zen kopurua...

Eta behin harako Peru Abarka eta Maisu Juan bezala, bi lagunak albisteak bildu ditugu orriotara. Amelia Barquín dugu bata, Mondragon Unibertsitateko [...] irakaslea. *Jakin* aldizkarian [...] idatzirik utzi dituen gogoetak hartuko dizkiogu maileguan. Bestea, Carolina Melo da, sortzezko brasildarra, duela dozena erdi bat urte Euskal Herrira etorria, senarra eta bi seme-alabak euskaldunak dituena. Canelle Bokategia irekia du Gasteizko Lakua auzoan, eta elebitan jarriak ditu establezimenduaren kanpoko iragarkia eta karta. Leihotik leihora jarri ditugu batoren teoria eta bestearen praktika [...].

Zertan ikasi?

Etorrinek ez omen dute euskara ikasten. Bertako askok ere ez. Ikasten duten autoktonoek lan arrazoiak eta arrazoi ideologikoak (kulturalak), dituzte. Zertan ikasi euskaraz lanean gure hizkuntzaren beharrik ez duenak? Amelia Barquín irakaslearen arabera, etorkinen lanetan –etxeak garbitzen, haurrak eta adinekoak zaintzen, eraikuntzan, kaleko salmentan...–, ez da euskararen exijentziarik. Bestalde, zertan ikasiko digu euskara “bere” kultur altxor ez duenak? Eta Barquínek, berriz: “Baliteke etorkinen batek [euskara ikasteko] behar hori sentitzea denbora dezente pasatu eta gero, baina ez da orokorra izango”. Bada, salbuespen da Carolina Melo: “Hemengo hizkuntza da, eta ikasi nahiko nuke. Hemen bizi naiz. Familia ere oso kontuan dut: senarra, euskalduna; seme-alabak, euskaldunak... euskaldunak eta brasildarrak, jakina... Kar, kar, kar. Nik euskaraz hainbestean ulertzen dut –euskaltegian ere ibili nintzen haurrak jaio baino lehen–, baina kosta egiten zait hitz egitea. Gure umeez, berriz, euskara, portugesa eta gaztelania ikasi dituzte, edo ikasten ari dira. Nik haiekin portugesez hitz egiten dut. Senarrarekin euskaraz mintzatzen dira... Etxean euskaraz da giroa, baina kalera irten eta gaztelania! Bertakoek ikasten ez badute, zertan ikasiko du kanpotik datorrenak?”.

Carolina Melok, dena den, ikasteari ekin zion, etorri orduko. Badu iritzia ere. “Immigranteok euskaltegiek bereganatu behar gaituzten jendea gara. Bankuek bezala egin: banketxeek, adibidez, immigranteentzako produktu espezifikoak eskaintzen dituzte. Bada, berdin egin beharko lukete hizkuntz eskolek, gaztelaniazko ikastaroak ez ezik, euskarazkoak ere eratu beharko lituzkete immigranteentzat. Eta diskriminazio positibo hori baliatu, eskolan edo behar den toki guztietan”. Eta ba ote dago presiorik, etorkinak euskara ikas dezan? “Ezet esango nuke. Nire kasuan, nik neuk estutzen dut nire burua, ez beste inork. Ni hemen bizi naiz, eta ikasi egin nahi dut euskaraz”.

Zer eskatu etorkinari?

Eta nola eskatu atzerrikoari euskaraz ikas dezan, bertakoak muzin egiten badio? Amelia Barquínek ba omen daki zer eskatu: errespetua. “Aurrera eramaten ari garen prozesuarekin errespetua”. Irakaslearen iritziko, euskal gizartearen zati handi batek erabat sinesten du hizkuntzaren iraupena ardatz duen proiektuan. “Etorrinek prozesu hori ulertzeko informazioa behar dute. Ondo azaldu behar zaie hizkuntzaren normalizazio prozesua, euskaraz zein bide egin duen eta zein egin behar duen”.

Etorrina bera sendoago ageri da bere uste eta sinesteetan: “Zertan ari dira Katalunian, ikastera derrigortzen ez bada? Zertan dira Finlandian? Atzerritarrek gutxienez sei hilabete igaro behar dute hizkuntza ikasten, eskolan ohiko ikasketak egiten hasi baino lehen... Eta Finlandia puntako herrialdea omen da hezkuntza gaitetan. Egokitze modua da hizkuntza ikastea. Beti izango dira kontuak: jendea derrigortzen duzula, diskriminatzen duzula... Beti izango dira aitzakiak, baina murgiltze modu bat ez legoke gaizki. Egia da beti ari garela esaten ez dagoela inor ezertara behartzerik eta hau eta hura... Polemikak! Baina balego lege bat agintzen duena hemen bizitzeko

halako hizkuntza ikasi behar dela dioena... Hemen, euskara ez ikasteak ez du ondoriorik”.

Miel A. Elustondo, *Argia* aldizkaria

GALDERAK

0. Zergatik dira esanguratsuak etorkin kopuruari buruzko datuak?

- a) EAEn Nafarroan baino etorkin gehiago daudelako.
- b) Etorkin kopurua agudo hazi dela erakusten dutelako.
- c) Oso denbora gutxian, Nafarroako etorkin kopurua biderkatu egin delako.

6. Amelia Barquínen arabera, etorkinek ez dute euskara ikasten...

- a) beren kultura galdu nahi ez dutelako.
- b) beren lanetan euskararen beharrik ez dutelako.
- c) horri buruzko informazio nahikorik ez dutelako.

7. Nolakoa da hizkuntza giroa Carolina Meloren etxean?

- a) Brasildarra da, nahiz eta, aita etxean dagoenetan, euskara ere erabiltzen duten.
- b) Etxeko giroa euskalduna da, baina kaletik etxera sartzen zaie gaztelania.
- c) Seme-alabek amarekin portugesez egin arren, etxeko giroa euskalduna da.

8. Carolina Meloren aburuz, zer egin beharko lukete euskaltegiek?

- a) Euskaltegiek etorkinak presionatu beharko lituzkete euskara ikas dezaten.
- b) Euskaltegiek bankuak animatu beharko lituzkete immigranteei euskara ikasteko beka eskaintzera.
- c) Immigranteei zuzenduriko ikastaroak eskaini beharko lituzkete.

9. Hemengo jende anitzek euskara ikasten ez badu ere, Amelia Barquínen iritziz, nola eskatzen ahal zaio ikasteko etorkinari?

- a) Bertze kulturak ezagutzea ona dela azalduz.
- b) Euskal gizartea euskara berreskuratzeko egiten ari den ahalegina erakutsiz eta azalduz.
- c) Euskal gizartean integratzeko zer bide egin behar duen azalduz.

10. Amelia Barquínen ustez...

- a) euskaraz ez jakiteak ondorioak izan beharko lituzke gure gizartean.
- b) ezin da jendea euskara ikastera behartu.
- c) Finlandia hezkuntza kontuetan puntako herrialdea da, han kanpotarrak hizkuntza ikastera behartzen dituztelako.

Galderak	0	6	7	8	9	10
Erantzunak	B					

HIRUGARREN ARIKETA. (5 puntu)

Testu honetan 5 hutsune daude. Zazpi aukera eskaini zaizkizu. Hutsune bakoitzari dagokiona aukeratu ondoren, osatu testua. 0 hutsunea adibidea da.

Zoriontasun pilulen alde iluna

Zenbat ezagun dituzu lo egiteko pastilla nahitaezko dutenak? Zenbat, estresa dela-eta antsiolitikoak hartzen dituztenak? Eta ezbehar baten ostean lasaigarriak kontsumitzen hasi direnak? **(0) Edozein familia-medikuri galdetuz gero**, kontsultak halakoez beteta dituela erantzungo dizu; are gehiago, asko eta asko psikofarmako horien menpe bizi dira.

Ander Larrinaga bizkaitarrak –izena aldatu diogu– 34 urte ditu eta hamalau daramatza Trankimazin hartzen, menpekotasun handia sortzen duen [...] lasaigarria, angustia eta antsietate kasuetarako oso erabilia. “Hogei urterekin, krisi gogor bat izan nuen: _____ **(11)** _____, baina segundoz segundo errepikatuta ordubetez. Zaila da azaltzen, ez da hain fisikoa, psikologikoa baino, konortea galdu aurretik bezala. Arazo pertsonalak nituen momentu hartan eta pentsatzen dut hein batean eragingo zutela”, kontatu digu Larrinagak. Larrialdietara joan eta _____ **(12)** _____, esan zioten ez zuela ezer fisikorik, antsietate krisi bat zuela. Horrelako krisiak sarritan izaten hasi zen, sarriegi, eta bigarren edo hirugarren kontsultarako familia-medikuak pastilla eman zion. “Kristoren mesedea egin zidan, asko lasaitu ninduen eta berauek hartzen hasi nintzen”. Lau urtez, Trankimazin pila bat kontsumitu zuen; gomendatutakoa jarraitu beharrean txarto sentitzen zen bakoitzean lasaigarrira jotzen zuen eta jarrera horrek areagotu egiten du menpekotasuna. “Lau orduko tartean bost hartzera iritsi nintekeen, bi miligramo inguru. Larrialditan sartuta eman nituen lehen lau urteak”. Gainera, gaur egun medikuntza protokoloak dio bentzodiazepina ezin dela hiru hilabetetik aurrera errezetatzen jarraitu, sortzen duen menpekotasuna dela-eta, baina orduan ez zegoen halakorik eta konturatzeko Ander Larrinaga Trankimazinaren morroi bihurtu zen.

Medikuen menpe

Larrinagaren historiarekin aurrera jarraitu aurretik, komeni da gogoratzea Anderrena ez dela kasu isolatua, inondik inora. Finean, gizarte erabat farmakologizatua da gurea, _____ **(13)** _____. Botikekiko baino, medikuntzarekiko menpekotasuna dugula da arazoa, Iñigo Altuna mediku homeopataren ustez. Beraren esanetan, medikuek menpekotasun hori indartu baino ez dute egiten: “Medikuntzari leporatzen diodana da ez ditugula pertsona askeak egiten, euren buruen jabe. Nahita, nahi gabe... baina hala da. Kontsultak pazientez beteak ditugulako kexu gara, baina nork eragin du hori? Hamabost egunero tentsioa hartzera joatearen gisako beharrak nork sortu ditu? Lehen jendea askeagoa zen, orain medikuaren esanetara dago eta guk, sustraiko gaitza gainditzen lagundu beharrean, askotan zuzenean medikatu egiten ditugu [...]”.

Altunak dio osasunaren inguruko neurosia bizi dugula gizartean, eta hedabideek zabaltzen dituzten mezuek eta medikuntzatik iristen diren etengabeko gomendioek –kontrajarriak batzuetan– ez dutela mesede egiten. “Argi dago hemen ez dagoela inor sufritzeko, _____ **(14)** _____, baina zahartzaroan loa pixka bat galtzea normala da, ezta? [...] Edota semea hil zaizu arratsaldean eta gau horretan lo egin behar duzu nahitaez?...”, planteatu du homeopata zarauztarrak. Are gehiago, ez dago medikatzearen aurka, medikatuz ondo sentitzen bada bat, bada aurrera, “baina ikusten duguna da jende asko dagoela medikatua egonagatik ez dena ondo sentitzen, urtetako medikazioaren zama bizkarrean”.

Zergatik ez?

Kontuak kontu, hainbatek farmakoetan ikusten du irtenbide onena: “Noski pastillek albo-ondorioren bat edo beste izan dezaketela, baina batzuetan okerragoa da gure organismoak modu naturalean eragiten digun mina; ala ez da txarra bihotz taupadak bat-batean izugarri igotzea? Zorabiatuta zure buruaren eta gorputzaren kontrola galtzea?”, dio Orfidal hartzen duen anonimoak Interneteko foro batean. Beste batzuek antsietatearekin bizitzen ikasi dute, ezer hartu gabe, baina Ander Larrinagak, adibidez, ez du lortu, noizbait saiatu den arren. Funtsean, bizkaitarrak dio _____ **(15)** _____, eta horregatik hainbatek errezeloz begiratzen duela oraindik “tontakeriengatik” medikatzea [...]. Antsietate eta angustiaren dozenaka sintoma daude deskribatuta: zorabioa, agorafobia, inguratzen gaituena irreal den sentsazioa, buruko mina, gorputzeko zatiren bat ez duzula sentitzea –aurpegia,

askotan–, pentsamendu koherentea izateko zailtasunak... Larrinagak aipaturako denak jasan ditu.

Mikel Garcia, Argia aldizkaria

AUKERATZEKO SINTAGMAK EDO ESALDIAK:

A. are gehiago

B. edozein familia-medikuri galdetuz gero

C. ez dela beti kontuan hartzen farmako horiek menpekotasun handia sortzen dutela

D. ez dugu zertan heroiak izan

E. ez gaudela ohituta gaixotasuntzat hartzen sintomak agerian ez dituen hori

F. haurdunalditik hasi eta zahartzaroraino

G. hurrengo segundoan hilko nintzen sententzia

H. makina bat proba egin ostean

Hutsuneak	0	11	12	13	14	15
Erantzunak	B					